


MARTXOAREN 8AREN INGURUKO OSPAKIZUNAK BULTZATZEN DITU DONOSTIAKO UDALAK

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen denez gero, aipatu data gogorarazteko hainbat ekintza bultzatzen eta sustatzen ditu Donostiako Udalak. Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna lortzeko egunean-egunean emakumeen elkarteek edo mugimendu feministek egiten duten lana aitortzeko, erakunde adierazpen bat onartu du Donostiako Udalbatzak, eta udal taldeen ordezkariak irakurriko dute martxoaren 8an (asteartea).

Aho batez onartu zuten erakunde adierazpena otsailaren 25eko osoko bilkuran, eta horren 15 akordioek ondokoak aldarrikatzen dituzte: erakunde guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak berrestea; emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka borroka egitea; gerratik eta jazarpenetik ihesi Donostiara heltzen diren emakume eta adingabe iheslarien beharrez arduratzeko konpromisoa; berdintasun politika aktibo, integral eta parte-hartzaileak sendotzeko konpromisoa; udal kaletegia aztertu eta emakume izenak sartzeko konpromisoa; idazkietan hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea; puntu kritikoen mapa lantzen jarraitzea, eta emakumeek eta talde feministek antolatutako mobilizazioei atxikitzea.



Berdintasuneko zinegotzi Duñike Agirrezabalagak adierazi duenez, “Udalak hezkuntza ez-sexista baten alde egiten du. Hala, lan lerro horretan esku hartu behar dute udal atal guztiek”. Hezkidetzatxertatu du haur txoko eta gazte lekuen sareak bere hezkuntza programa guztietan (Berdintasun Ipuinak, Txapak Sortzen, Antzerkitxoak Sortzen, Berdintasun Dominoak, eta zenbait lantegi: Kantak Aztertzen, Emakumeak Ez Gara Printzesak, Historiako Emakumeak, Horma irudiak Sortzen, Autodefentsa Feminista), bai eta martxoaren 8aren inguruan ekintza bereziak antolatu ere.


“Egun egiten dugun lana izango da berdintasuneko gizarte baten etorkizunaren oinarria, batez ere umeei helarazten diegun hezkuntza ez-lerratuan. Horixe da administrazioak egin dezakeen inbertsio onena: Berdintasun Hezkuntzan inbertitzea”, nabarmendu du Agirrezabalagak.

Azken urteotan ohi bezala, erakundeek auzoetan —urte osoan haietan baitihardute— antolatzen dituzten ekintzak eta abar jasotzen ditu egun honen inguruko ekitaldien programak.

Horiek guztiak, hartarako argitaraturiko esku programan jasota daude.

Zenbait ekitaldi nabarmen

- Martxoaren 7an, Intxaurrendoko Kultur Etxean *Haiei esker bagara* erakusketa inauguratuko dute, Lagunak Elkarteak eta Intxaurrendoko Berri Emakumeen Elkarteak antolatuta.
- Dandai elkarteak emakumeentzako bazkari bat antolatu du martxoaren 8rako, Amara Plaza hotelean. Biharamunean, *Retratos en blanco y negro* liburua aurkeztuko du Arantxa Urretabizkaia idazleak egoitzan.
- Ondartxo abesbatzak kantatuko du martxoaren 8an, Intxaurrendoko kultur etxean.
- **Bulebarretik abiatuko da martxoaren 8ko 19:00etan Donostiako Koordinakunde Feministak deitu duen manifestazioa.**
- *Azkenean, alargun* filma proiektatuko dute martxoaren 9an, erakundeek San Bartolome kaleko 5ean duten egoitzan. Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarteak antolatu du.
- Intxaurrendoko Emakumearen Asteko ekintzen artean, martxoaren 9an, *Amama* pelikula proiektatuko dute, eta, segituan, solasaldi bat izango da.



- Gai lesbikodun pelikula laburrak proiektatu dituzte Gehitu elkartearen egoitzan, martxoaren 11n, eta gero, solasean egingo. Hurrengo egunerako, (martxoaren 12a), *tuppersex* lesbiko bat antolatu dute.
- Martxoaren 11n, Emakumeen Etxean, *La educación, Memoria e Historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas* liburua aurkeztuko dute, Begoña Gorosperekin eta Karmele Bujanekin.
- Martxoaren 11n, Intxaurrendoko kultur etxean, *Ebaren alabak* lana antzeztuko dute.
- Martxoaren 16an, Emakumeen Etxean, *Feminismos plurales en América Latina* hitzaldia izango da.